



**EBAZPENA, 2025eko martxoaren 10ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioen arteko 2024/2025eko, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.**

Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko aginduak (2024ko azaroaren 4koa EHAA), Maisu-maistren Kidegoko funtzionario irakasleen artean 2024/2025eko ikasturtean, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeitaseigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

### **EBATZI DUT:**

**Lehenengoa.-** Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioen arteko 2024/2025eko, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

**Bigarrena.-** Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2025eko martxoaren 12tik 18ra, bi egun horiek barne.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>. Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze-lehiaketa / Behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioa edo lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egitea.

**UNAI NIETO MARIJUAN  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxoaren 10ean